

Barakaldo hitza 2019

.....

Apirilak 1, ASTELEHENA

19:00etan. LIBURUTEGI NAGUSIAN - UDAL ERAKUSKETA ARETOAN
Aline Soberon eta Txema Uriarteren *Viñetas para el recuerdo* liburuaren **aurkezpena** egingo da. Guda zibilean Bilboko egunkarietan argitaratutako binetak eta marrazkiak bilduko dira. Aurkezpena amaitzean, autoreek ikusleak gonbidatuko dituzte **“Marrazkilariak gerran 1936-1939”** erakusketa ikustera.

Apirilak 2, ASTEARTEA

17:30ean. GURUTZETAKO LIBURUTEGIAN
“Irudikok” ilustrazio eta sormenezko marrazkiko tailerra, Eider Eibarren eskutik. 6 urtetik aurrera. (Euskaraz).
Izen-emateak Guruzetako liburutegian.

Apirilak 3, ASTEAZKENA

18:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN
Irakurketa maratokia. Irakurketa sustatzeko ekintza, irakurketak duen garrantzia eta bere gozamena ikusgai egiteko asmoz. Nahi duen barakaldar orok gogokoen duen liburuaren atal bat irakurri ahalko du jendaurrean. Musika zuzenean eta antzerkia.
Izen-emateak zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

18:30ean. RETUERTOKO KULTUR ETXEAN
Haurrentzako ipuin-kontaketa. “Naturaren Magia”, Bego Alabazanen eskutik. 5 urtetik aurrera. (Euskaraz).
Hartu gonbidapena zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

Apirilak 4, OSTEGUNA

18:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN
Ipuin-kontaketa. “Kontari eta Kantari”, musika-tresnekin eta musika zuzenean, 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzat. (Euskaraz).
Txikiguneko bazkideei soilik zuzendutako ekintza.

Apirilak 5, OSTIRAKA

11:00etan. ANAIEN PARKEAN

Barakaldoko XXIX. Liburu Azoka irekitzea.

18:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN

Irakurketa Klubaren saioa, Manuel Vilas-en **Ordessa** liburuaren inguruan mintzatzeko.

Apirilak 6, LARUNBATA

10:00etan. ANAIEN PARKEAN

X. Literatur Rallya. Argazki rally bat argazkiak egitean datza, oinez egiten den ibilbide batean zehar. Literatur rally bat, berriz, taldekako ibilbidean zehar idaztean datza. Horretarako, ibilbidea egiten dugu gure herriko kaleetan barrena, geldialditxo bat egiteko aprobeztatzen dugu eta idatzi egiten dugu, ekitaldiaren gidariaren jarraibideei jarraikiz (ibilbidearenei eta idatzi beharreko testuenei ere). Beraz, idaztea gustuko dutenei eta hirian dauden estimuluetan oinarriturik idatzi nahi duten pertsona guztiei zuzendutako jarduera da. Gidaria: Josu Montero. Idazle eta literatur kritikari barakaldarra.

Topagunea: Herriko Plazako agertokian. Ez da beharrezkoa alde zurretik izena ematea.

18:00etan. GURUTZETAKO ZENTRO ZIBIKOAN

Ikuskizuna. "Amilami" ipuin multimedia, Pantzart konpaniaren eskutik. 4 urtetik aurrera. (Euskaraz). Juan Kruz Igerabideren eleberrri homonimoan oinarrituta, ikuskizunak euskal kultura herrikoia eta munduko musikak bateratzen ditu.

Hartu gonbidapena zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

19:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN

"Con Machado... Verso a verso" ekitaldi poetikoa, biografikoa eta musikala. Olerkaria erbesteratu eta zendu zenetik 80 urte igaro eta gero, omenaldia egingo zaie haren bizitza eta lanei. Historia, obrak eta autorearen sentimenduak bateratzen dituen marko aztoratua.

Aktore-narratzailea, rapsoda, gitarra eta perkusioa. Poetalia.

Hartu gonbidapena zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

Apirilak 8, ASTELEHENA

18:30ean. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN

Literatur topaketa Elena Fernández barakaldar idazlearekin. Duela gutxi euskaraz argitaratu duen bigarren eleberraren inguruan hitz egingo da, hots, **Inpostorearen** inguruan. (Euskaraz).

Apirilak 9, ASTEARTEA

19:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN

Ipuin-kontaketa. "Cuentos oscuros", Bego Alabazanen eskutik. Beldurra gustuko duten pertsona helduei zuzenduta. Ahal baldin bada, lagun on batekin etortzea komeni da, etxerako bidea iluna da eta...

Hartu gonbidapena zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

20:00etan. BARAKALDO ANTZOKIAN

“Fruitu arraroak” errezitaldia. Harkaitz Cano idazleak eta Maite Larburu instrumentistak jatorrizko abesti eta bertsiio “harrigarri” batzuen bilduma eskainiko digute. Askotan, fruiturik goxoenak aurreikuspenik gabe sortzen dira. Gauza bera gertatzen da abestien kasuan: estiloen gurutzapena, bertsiio eta desbiderapena, ahotsen eta hitzen nahasketa... Poema izan ala ez izan, ustekabeko testuak eta testurik bitxienak kantagarri bihurtu daitezke. (Euskaraz).

Hartu gonbidapena Barakaldo Antzokian, zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

Apirilak 10, ASTEAZKENA

19:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN

Literatur topaketa Manuel Vilasekin. Bere belaunaldiko poeta eta narratzaile nagusienetako bat. 2018. urtean, mundua harrিতuta hutsi zuen **Ordessa** eleberri autobiografikoarekin, etengabe kritika bikainak jasotzen dituenarekin. Bihozbera, sakona eta suspergarria den istorioa. Mundu osoa eleberri horren inguruan hitz egiten ari da, badakizu zergatik? Berak kontatuko digu.

Sarrerak edukiera bete arte.

Apirilak 11, OSTEGUNA

19:00etan. CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOAN

Endika Lahaineren Otsa liburuaren **aurkezpen musikatua.** Endika Lahaine eta David Nanclares proiektu berezi horretan elkartu dira, non olerkiak musika estilo ezberdinekin (rap, reggae, rock) elkartzen baitiren. Gonbidatu bereziek ere hartuko dute parte. (Euskaraz).

Sarrerak edukiera bete arte.

Beste jarduera batzuk

IPUINPLAZA

Martxoak 29, 30 eta 31

“IPUINPLAZA”k ipuinetako pertsonaia erraldoiak ekarriko ditu Barkaldoko Portuko Dartsena plazara, kolore biziaz. Aliciaren abenturak lurralde miresgarrian, Hiru txerri txoak, Pinotxo, Pottokiak, Ederra eta Piztia eta Minionak Urban Galindoko auzoko taberna, saltoki eta etxebizitzetan barrena ibiliko dira. Gainera, familiei zuzendutako txotxongilo antzezlanak, ipuin-kontaketa saioak eta doako tailerrak eskainiko dira.

LIBURU TRUKEA

Apirilaren 1etik 13ra

Atsegin al duzu irakurtzea? Ba al duzu etxean non gorde ez dakizun irakurritako libururik? Orain, liburuak trukatzeko aukera duzu. Barakaldoko zentro zibiko eta kultur etxeek leku bat jarri dute, liburuak trukatu ahal izateko.

LITERATUR JOLAS DIBERTIGARRIAK

Apirilaren 1etik 13ra

Barakaldoko zentro zibikoek eta kultur etxeek literatura jarduerak irauko duten egunetan zehar hitz eta liburuekin jolastea proposatzen dute. Horretarako, nahi duten barakaldarrei ebazteko bost joko planteatuko dizkiete. Parte-hartzaileen artean, dozenaka liburu zozkatuko dituzte.

MIKROKONTAKETEN IV. LEHIAKETA

Apirilaren 1etik 14ra

Parte-hartzaileek gehienez 20 hitzeko mikrokontaketa bat idatzi behar dute euskaraz, **“Zirt edo zart egin behar”** hitzak barneratuz. Kontaketak whatsapp bidez bidaliko dira ondoko zenbakira: 690 123 492

Sari banaketa: Maiatzaren 8an, 19:00etan, Barakaldo Antzokian.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 1etik maiatzaren 15era

UDAL ERAKUSKETA ARETOA

“Marraskilariak gerran 1936-1939”, Aline Soberon eta Txema Uriarteren eskutik.

Apirilaren 2tik 27ra

CLARA CAMPOAMOR ZENTRO ZIBIKOA

“Maluta’ Kattuak”. **Mondflöckchen**. Kafe baten inguruko gogoetak. Ane Lore García.

Apirilaren 1etik 23ra

GURUTZETAKO ZENTRO ZIBIKOA

“Olerkia eta ilustrazioa”. Erakusketa Ibiltariak BBK.

JOSE MARIA PORTELL XV. LITERATUR LEHIAKETA

Euskaraz eta gaztelaniaz egindako lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 14a izango da. Oinarriak kontsultatzeko: www.concursoportell.com

Sari banaketa: Maiatzaren 31, 18:30ean, San Paulino Nola ikastetxean (Salesiarrak)

Barakaldoko XXIX. Liburu Azoka

Apirilaren 5etik 14ra

Barakaldoko Anaien Parkeak **Liburu Azokaren** edizio berria jasoko du. Standak zabalik egongo dira:

Astelehenetik ostiralera, | **Larunbat eta igandeetan,**
11:00 - 14:00 | 17:00 - 21:00 | 11:00 - 15:00 | 17:00 - 21:00

Oso aukera egokia izango da literatura nobedadeak hurbil hurbiletik ezagutzeko, bai eta klasikoetara hurbiltzeko ere.

Dinamizazioa

Apirilak 5, ostirala 12:30 | **Apirilak 9, asteartea** 18:30
Arimaktore

Haurrentzako jarduerak

Irakurketa txokoa, "Zeintzuk dira nire arrazoiak irakurtzeko" parte-hartze murala, zurezko jolas erraldoiak, tailerrak...

Apirilak 5, ostirala | **Apirilak 6, larunbata**
17:30 - 20:30 | 18:00 - 20:30



Informazio gehiago eta izen-ematea:

Apirilaren 1etik aurrera, Barakaldoko zentro zibikoetan eta kultur etxeetan.

Burtzeñako kultur etxea
Francisco Tierra, 4
Tel. 944789496

Zuhatzuko kultur etxea
Unamuno, 7
Tel. 944789512

Retuertoko kultur etxea
Beteluri bidea s/n
Tel. 944789506

Gurutzetako Zentro Zibikoa
Balejo, 4
Tel. 944789485

Clara Campoamor Zentro Zibikoa
Gemikako Arbola, 41
Tel. 944789552

Burtzeñako Aretoa
Zumalakarregi
Tel. 944900161